

3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

3.1 Proiektua bideratzeko beharrezko bazkide eta hornitzaile nagusiak

AdaptaBerri lau gizarteratzailek osatzen dugu, eta taldearen barne-gaitasunek estaltzen dituzte edukien diseinua, ikuspegi pedagogikoa, inklusioaren tratamendua eta produktuaren estetika bisuala. Barne-espezializazio horri esker, ekoizpen- eta diseinu-prozesuaren zati handi bat modu autonomoan garatu dezakegu.

Hala ere, proiektuaren kalitatea eta eskalagarritasuna bermatzeko, ezinbestekoak dira honako bazkide eta hornitzaile hauek:

Inprimaketa eta ekoizpen profesionaleko zerbitzuak →



Ipuinak, jarduera-fitxak eta material osagarriak formatu egonkorrean eta kalitate handian sortzeko.

Ikastetxe eta hezkuntza- erakunde kolaboratzaileak →



Gure produktuen prototipoak egiazko eskoletan frogatu, ebaluatu eta hobetzeko.

3.2 Bazkide eta hornitzaile horien garrantzia gure negozio-ereduan


Bazkide-sare honek hainbat itun edo akordio estrategiko biltzen ditu, eta StartInnovak azpimarratzen dituen negozio-eredu sendo baten oinarriak bermatzen ditu. Itun horiek honako funtzio hauek betetzen dituzte:

Negozio-ereduaren optimizazioa

Kanpoko ekoizpen-zerbitzuek prozesu teknikoak arintzen dituzte (inprimaketa, mozketa, loteen prestaketa...)
Horri esker barne-taldeak gyre ezagutza espezializatua bideratu dezakegu eduki pedagogikoaren kalitatean eta inklusio-ikuspegian.

Arriskuen murrizketa eta prototipazio errealista

Ikastetxe kolaboratzaileek aukera ematen dute produktuak benetako testuinguruetan probatzeko.
Horri esker, arazo operatiboak, egokitzapenak edo hezkuntza-beharrekin lotutako beharrak merkaturatu aurretik identifikatu eta zuzendu ditzakegu.



3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Baliabide Espezializatueta Sarbidea

- Inprimaketa profesionalak gure produktuen kalitatea, iraunkortasuna eta sinesgarritasuna bermatzen ditu.
- Hezkuntza-erakundeek, berriz, feedback espezializatua eskaintzen dute (ebidentzietan oinarritutako oharrak, behaketa pedagogikoak, behar berezien egokitzapenak...).



Bazkide-sare egituratu eta espezializatu honek AdaptaBerriren bideragarritasuna, kalitatea eta jasagarritasuna sendotzen ditu, eta gure proiektua benetan aplikagarria, fidagarria eta merkatuko beharretara egokitua izatea bermatzen du.

BIBLIOGRAFIA

- SologoAI. (s. f.). AI logo generator — Generated logos. SologoAI. <https://www.sologo.ai/ai-logo-generator/generated>
- TuLibrodeFP. (s. f.). Inicio - TuLibrodeFP. Editorial TuLibro. https://www.editorialtulibro.es/tulibrodefp/?utm_source
- STARTinnova. (s. f.). STARTinnova — programa de emprendimiento. https://araba.startinnova.com/estado_curso.php?idioma=es
- International Dyslexia Association. (s. f.). Dyslexia basics. https://dyslexiaida.org/dyslexia-basics/?utm_source=
- Federación Española de Dislexia (FEDIS). (s. f.). Federación Española de Dislexia (FEDIS). https://fedis.org/?utm_source
- EDGAR — U.S. Securities and Exchange Commission (SEC). (s. f.). EDGAR — Search and company filings https://www.sec.gov/edgar/search/?utm_source=

